



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko ekainaren 28a

93. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Paderborn-Victor Pradera HLHIPa lekualda dezan, Iruñeko Arrosadia auzoaren barrenean, José Vila ikastetxearen instalazioetara. Hezkuntza Batzordeak onetsia (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, A-68 autobideko 83. eta 116. kilometro-puntuen artean nekazariak beren lurretara iristeko sarbideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, indarrean diren udalez gaindiko plan sektorialeko buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Pediatriako Zainketa Intentsiboen Unitateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Cascanteko osasun etxeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Fiteroko monasterioan 2016an egin beharreko jarduketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Tuterako Magdalena elizan 2016an egin beharreko jarduketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, B meningitisaren txertoaren hornidurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Aragoiko telebistaren emisioak ikusi ahal izan daitezen Aragoiko Autonomia Erkidegoarekin inolako hitzarmenik edo akordiorik egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko mandatari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko, B2 pareko euskara mailarekin. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (15. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Paderborn-Víctor Pradera HLHIPa lekualda dezan, Iruñeko Arrosadia auzoaren barrenean, José Vila ikastetxearen instalazioetara.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2016ko ekainaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Paderborn-Víctor Pradera HLHIPa lekualda dezan, Iruñeko Arrosadia auzoaren barrenean, José Vila ikastetxearen instalazioetara."

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Paderborn-Víctor Pradera

HLHIPa lekualda dezan, Iruñeko Arrosadia auzoaren barrenean, José Vila ikastetxearen instalazioetara.

Ikastetxea lekuz aldatzeko erabaki hau gauzatzean kontuan hartuko dira Nafarroan Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Batzordearen aholkuak."

Iruñean, 2016ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, A-68 autobideko 83. eta 116. kilometro-puntuen artean nekazariak beren lurretara iristeko sarbideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Couso Chamarro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, A-68 autobideko 83. eta 116. kilometro-puntuen artean nekazariak beren lurretara iristeko sarbideei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 29ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Podemos-Ahal dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro jaunak 9-16/PES-180 parlamentu-galdera egin du, A-68 autobideko 83 kilometro puntutik 116. kilometro puntura doan tarteari buruz. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna:

Kontuan hartu behar dugun lehenengo alderdia Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legea da, zeinak ezartzen baitu Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa dela Nafarroako errepide sarearen titularra, eta sare hori Foru Komunitateko lurraldean barna iragaten diren eta Nafarroako errepideen katalogoan dauden errepideek osatzen dutela. Baldintza horietan, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak bide zerbitzu publikoen erantzukizuna du, bai eta aipatutako foru legeak aitortzen dizkion eskumenez eta ahalmenez baliatzeko erantzukizuna ere.

Halaber, ezartzen du zein bidek osatzen duten errepide sarea, eta haiek definitu eta sailkatzen ditu beren ezaugarri funtzionalen arabera. Bada, horri jarraituz, Ebroko autobidea deitzen den A-68-ri, autobidea den aldetik, honako hauek dagozkio:

"Bi aldeetan hesiturik egotea, luzera osoan."

"Institutuko bidea" deitutakotik zerbitzu bidera eta bide horretatik zuzenean A-68 autobidara sartzeko aukera egoteak sortzen duen azaroa detektatu da, itxitura perimetralaren tarte bat falta izatearen ondorioz (horrekin urratzen dira martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legea, 1997ko abenduaren 16ko Agindua, maiatzaren 24ko FOM/17040/2006 Agindua, otsailaren 14ko FOM/392/2006 Agindua, 2001eko irailaren 13ko Agindua eta 1999ko abenduaren 28 Agindua, zeinak errepideei buruzko Instrukzioaren 3.1-IC Trazadurari buruzko Araua onesten baitu). Hori dela eta, azkenean, bide, ubide eta portuetako ingeniari José Ramón Ranz Garrido jaunak idatzitako "Ebroko Autobidea A-68ko sarrerak 84.3 eta 116.5 kilometro puntuen artean mugatzeari buruzko azterlan integrala" izeneko txostenean proposatutakoari jarraituz, irteera hori deuseztatu egin da, autobidea ixteko hesiak jarritz eta, gainera, bide-markak eta aurreko egoerarekin kontraesanetan datozen seinale bertikalak ere kenduz.

Nekazaritza-ibilgailuak A-68tik zirkulatzeko ezintasuna Zirkulazio Erregelamendu Orokorrek ezartzen du (38. artikulua eta eranskinak), eta ez autobidaren itxitura perimetrala ixteak, eta autobidea horretatik dabilen trafiko handiaren segurtasunari dagozkion gai nagusian oinarrituta dago.

Horri dagokionez, zenbait bilera eta elkarrizketa izan dira mintzakide desberdinekin, 2015eko udazketatik: Tuterako Udaleko ordezkariak, Udaltzaingoa, Foruzaingoa eta abar. Elkarrizketa horietan arazoa legea betetzearen eta bide segurtasunaren ikuspegitik landu da, eta eskola-autobusei, hiri-autobusei eta hiri arteko autobusei dagozkien alderdiak ere aztertu dira, bai eta nekazaritzako ibilgailuei –orokorrean, ez zehazki– dagozkien alderdiak ere.

2016eko martxoaren 10ean, jendaurrean jarri zen aukeratutako konponbidea Tuteran egindako agerraldi ireki batean, Udaleko ordezkariak bertan

zirela, eta iragarri zen berehala ekinen zitzaiela A-68 autobioako sarrerak mugatzeari buruzko aipaturako azterlanean proposaturako jarduketei. Agerraldi horretan azaldu zen jarduketak bi asteren buruan amaituta egonen zirela.

"Autobia bat egitean, zerbitzu-bideak gaitu behar dira beti, bide horrekin muga egiten duten finkei sarbide iraunkor bat emateko" gaiari dagokionez, berriz, hona informatzeko daukaguna:

"N-232, Tuterako Saihesbidea, errepideko galtzada bikoizteko" proiektuari zegozkion lanak 1999an hasi ziren. Lanak, 10,7 kilometroko luzera zutenak, 2002ko ekainean jarri ziren zerbitzuan. Gero, ondoz ondo egin eta zerbitzuan jarri ziren Fontellas-Buñuel tartea, 9,4 kilometrokoa, 2006. urtean, Buñuel-Cortes tartea, 6,0 kilometrokoa, 2008. urtean, eta Tuterako-Castejón tartea, 7,1 kilometrokoa, 2008. urtean.

Hartara, 2008ko ekainean, Nafarroako tarteko 33.2 kilometroko bikoiztea amaitu zen, eta antzinako N-232 errepidea A-68 Ebroko Autobia bilakatu zen, eta halaxe jasotzen zuen jada 2007. urtean Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legeko Errepideen Katalogoak.

"N-232, Tuterako Saihesbidea, errepideko galtzada bikoizteko" proiektua 1998ko urrian onetsi zen, jendaurreko aldi baten ondoren, non, besteak beste, honako hauen alegazioei erantzun baitzitzaizkien:

- Tuterako "Huertas Mayores" eta "Campos Unidos" ureztatzailen Erkidegokoko burua.
- José Luis Navarro Zubeldía, nekazaria.
- Luis Campoy Zueco, Tuterako alkatea.
- Andrés Agorreta Arriazu, Fontellasko alkatea.

Bada, alegazio horiek aipatzen ditugu zerbitzuko bideei buruzkoak eta nekazaritza-makineriaren joan-etorriei buruzkoak baitira.

Behin betiko onetsi zen proiektuak jaso egiten du dauden bideak egokitzea eta haiei jarraitutasuna ematen dieten beste batzuk lehengoratzea.

Halaber, komenigarritzat jotzen da bide berriak obraren hasieran egitea, nekazaritza-ibilgailuak N-232 errepidera sar daitezzen saihesteko.

Bideak planoetan jasota daude, eta haiek egiteko erabiliko diren materialak 8. kapituluan finkatuta daude eta ekonomikoki baloratuta daude –Bideak lehengoratu eta egokitzea–, zeinak 44.481.769,67 pezetako kopurua jasotzen baitu, % 16ko BEZa barne dela.

"A-68an sekula ez ziren behar bezala egin zerbitzu-bideak, eta horregatik baimentzen zen nekazaritza-ibilgailuen zirkulazioa" gaiari dagokionez, berriz, hona informatzeko daukaguna:

N-232 errepide bikoiztua 2002ko ekainean jarri zen zerbitzuan, "N-232, Tuterako Saihesbidea, errepideko galtzada bikoizteko lan osagarrien" proiektuko obrak oraindik ere amaitu gabe zeudela (proiektu hori egin behar izan zen hain zuzen ere sarrerei edo zerbitzu-bideei buruzko alegazioak edo eskariak jasotzeko), non, besteak beste, honakoen moduko azpiegiturak egitea jasotzen baitzen: Albeako bidea eta beste zerbitzu-bide batzuen lehengoratzea, konexioa edo zabaltzea.

Bi alderdi garrantzitsu nabarmendu behar ditugu:

1.- Proiektuak jasotzen zuen Zaragoza-Logroño norabidean errepidearen eskuineko aldetiko bideari jarraitutasuna ematea, lehendik zegoen bide bat errepidearekin eta Fontellasko gurutzagunarekin lotuz. Hala eta guztiz ere, "Campo de Valpertuna" ureztatzailen erkidegoa akordio batera iritsi zen Eroski enpresarekin, eta haren bidez "erkidegoak onartu zuen bide bat desagertzea eta Eroski enpresak baimena eman zuen erkidegoko erabiltzaileak Eroski enpresako aparkalekutik igarotzeko".

Gaur egun, traktoreek ezin dute konexio hori erabili.

2.- Proiektuak jasotzen zuen, halaber, Zaragoza-Logroño norabidean errepidearen eskuineko aldetik doan zerbitzu-bideari jarraitutasuna ematea, N-121-C errepidearekiko konexioraino, Institutuaren parean (gaur egun, Tarazonako errepidea da, Tuterako Udalaren titularitatekoa), eta horrek modua ematen zuen, bera gurutzatuta, zerbitzuetatik jarraitzeko Albeako bideari jarraitutasuna ematen dion egiturara arte, A-68 autobia beste maila batean gurutzatuz eta norabidez aldatuz.

Tuterako Udalak bide horretan egin duen trafiko-antolamenduak ezinezko egiten du gaur egun bertan sartzeari eta gurutzatzea zerbitzu-bidearekin lotzeko.

Dirudienek, inguruabar horiek eragin zuten Tuterako Saihesbidea zerbitzuan jarri baino hilabete batzuk lehenago, bai nekazarien elkarteek zein tokiko enpresek, bai Tuterako eta Fontellasko udalek ere orduko Herri-lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariari eskatzea behin-behineko sarbide batzuei eusteko eta traktoreak saihesbidean zirkulatzeko baimena emateko.

Ez dago jasota eskari horien aldeko inongo txosten tekniko edo juridikorik dagoenik, ez eta

horren arduradun den eta horretarako eskudun den inongo organoren baimenik ere (Lehendakari-tza Departamentuko Barne Zuzendaritza Nagusia edo/eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia).

"Zer neurri hartu da edo hartuko da nekazariak beren lurretara sartzearen auzia konpontzeko?" galderaren erantzuna hauxe da:

Gaur egun, nekazari guztiak aukera dute beren lurretara eginda dauden bideetatik iristeko, eta inguruabar hori jada 1998an onetsitako proiektuan jasota zegoen. Sortu den arazoa da, printzipioz, A-68 autobiatik igaro daitekeen ala ez. Nekazaritza-ibilgailuek lehendik dauden bideak erabil ditzakete, bai Tuteran, bai Fontellasen, eta ez da beharrezkoa horiek guztiak Tuterako hirigunean barna zirkulatzea.

Kontuan hartu beharra daukagu, horrenbestez, ezen, hobetzeko modukoa izanik ere, egungo bideen sarea, eta, zehazki, aztertutako ibilbideak, nekazaritza-ibilgailuentzako A-68 autobiaten trazaduraren alternatiba bideragarri bat izan daitezkeela; hala eta guztiz ere, egingarri eta komenigarritzat jotzen da zerbitzu-bideen eta nekazaritza-bideen sarean jarduketa batzuk egitea, haietan barna ibiltzea nabarmen hobetuko dutenak, bai erosotasunari begira (zolakura berdintzea eta berritzea), bai eta segurtasunari begira ere (plataforma zabaltzea eta bidegurutzeak).

Horri dagokionez, zenbait bilera egin ditugu jada ukitutako eragile guztiakin: UAGN sindikatua, Fontellasko eta Tuterako udalak, Tuterako Udaltzaingoa, Foruzaingoa, Guardia Zibila eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusia), horietako bat terrenean bertan –A-68 autobidearen balizko ibilbide alternatibo guztietan barna ibili ginen–. Bada, bilera horietan ondorioztatu da elkarrekin lan eginen dugula bideak hobetzeko, eta finkatu dugu lanen balizko norainokoa zein izanen den eta nork eta nola egin behar dituen.

Nafarroako Gobernuak jada proposatu du bideak hobetzeko lehenengo fase bati ekitea, eta asmoa da epe laburrean jardutea, gastuak bere gain hartuta, lehendik dauden bideetako baldintzak hobetzeko: zabalera erabilgarria, ezpondetako sasiak kentzea, ibiltzeko azalera berdintzea, mailan jartzea eta konpaktatzea eta abar, NA-160, NA-3010 eta N-121C errepideetako bidegurutzeetan jada egindakoa osatze aldera.

Bileretan aurreikusi da, halaber, aurrerago anbizio handiagoko bigarren fase bati ekitea, non bai nekazariak, bai udalek dauden bideak hobetzeko edo nekazaritza-ibilgailuentzako beste ibilbi-

de alternatibo batzuk egiteko bigarren fase hori aztertu eta finkatuko duten.

Horretarako lurak okupatu beharko liratekeenez edo beste entitate edo partikular batzuekin adostasunetara iritsi beharko litzatekeenez, lursailen jabeekiko balizko akordioak kudeatzeko konpromisoa hartu da, nahitaezko desjabetzeetara jo behar gabe zenbait hobekuntza egin ahal izateko edo bide-tarte berri batzuk egin ahal izateko, traktoreen zirkulazioa hobetzeari begira. Balizko hobekuntza horien finantzaketa bideen titularren eta administrazio eskudunen arteko negoziatioaren edo hitzarmenen bitartez eraman beharko lirateke aurrera.

"Noiz, nola eta zertan oinarrituta erabaki zen baimen horiek mugatzea, baldin eta ez badago nekazaritza-sektoreari arazoa konponduko dion ordezkotza planik?" galderaren erantzuna, berriz, hauxe da:

Nafarroako Errepideei buruzko 5/2007 Foru Legeak eta Nafarroako Errepideen Katalogo indardunak errepide-tarte hori autobiatzat sailkatzen eta jotzen du, A-68 Ebroko Autobiatzat hain zuzen ere, eta halakotzat seinalizatuta eta balizatuta egon behar du, aplikatzekoa zaioen araudia bete-zearen eraginetarako.

N-232 errepidea, Tuterako Saihesbidea, bikoizteko proiektuak jada inguruabar hori jasotzen zuen, alegia, errepide-tarte hori autobia bihurtzea eta hartatik nekazaritza-ibilgailuak ezin ibiltzea, eta ibilgailu horiek iragateko bideen eta zerbitzu-bideen egiturak definitzea eta egitea aurreikusten zuen; halaber, aurreikusten zuen tartea autobia gisa seinalatzea eta balizatzea, 1998. urtean indarrean zegoen araudiari jarraituz.

Traktoreak autobiatik ezin ibiltzeko arrazoia, funtsean, segurtasunekoa da, eta hala dago jasota autobietako zirkulazioari buruzko araudian. Bide-segurtasuna, bestetik, trafikoa-aren intentsitateak determinatzen du argiro.

Kontserbazio Zerbitzuak trafikoa dela-eta neur-tu dituen aforoen arabera, A-68 autobia da egune-ro ibilgailu astun gehien hartzen duen azpiegitura. Honako hau da egin zen unetik izan duen bilakae-ra:

1998. urtea: 12.539 ibilgailu, 4.664 ibilgailu astun. (Saihesbidearen proiektua egin zen urtea)

2009. urtea: 18.400 ibilgailu, 5.685 ibilgailu astun. (% 46,7 eta % 21,9)

2015. urtea: 18.045 ibilgailu, 5.789 ibilgailu astun. (% 43,9 eta % 24,1)

Horrek esan nahi du egin zenetik guztizko trafikoak % 43,9 egin duela gora, eta trafiko astunak, berriz, % 24,1.

A-68 autobioiako istripuei buruzko azterlanak, berriz, erakusten du azken urteetan, 2009ko urtarilaren 1etik 2016ko apirilaren 17ra, bost kilometro horietan 136 istripu izan direla, eta horietako hamalautan biktimak izan direla. 22 biktima izan dira: 20 zauritu eta 2 hildako.

Nafarroako Gobernuak modu oso positiboan baloratzen du A-68 autobioatik nekazaritza-ibilgailuen zirkulazioa debekatzea, zeren eta araudia eta legedia betetzeaz gainera, bide-segurtasuna oso modu nabarmenean hobetu baita, bai nekazaritza-ibilgailuentzat beraientzat, bai autobioan barna doazen 18.000tik gorako erabiltzaileen ztat ere –horietatik asko tuterarrak eta Tuteran inguruko herrietakoak–, eta jotzen du, halaber, bideen egungo sarea, eta, zehazki, aztertutako ibilbideak, alternatiba bideragarri bat direla (hobetzeko modukoa ere bai) nekazaritza-ibilgailuak A-68 autobioan ibil daitezzen saihesteko.

Honako hau da "Abisatu al zitzaaien kaltetuei?" galderaren erantzuna:

Ez dago A-68ko jarduketari eta haren ondorioei buruzko komunikazio formalik, baina zenbait bilera

eta elkarrizketa izan dira mintzakide desberdinekin, 2015eko udazkenetik: Tuterako Udaleko ordezkariak, Udaltzaingoa, Foruzaingoa, UAGN sindikatu eta abar. Elkarrizketa horietan arazoa legea betetzearen eta bide segurtasunaren ikuspegitik landu da, eta eskola-autobusei, hiri-autobusei eta hiri arteko autobusei dagozkien alderdiak ere aztertu dira, bai eta nekazaritzako ibilgailuei –oro-korrean, ez zehazki– dagozkien alderdiak ere.

2016eko martxoaren 10ean, jendaurrean jarri zen aukeratutako konponbidea, Tuterako Udaleko ordezkariak bertan zirela, eta iragarri zen berehala ekinen zitzaieela A-68 autobioako sarrerak mugatzeari buruzko behin eta berriz aipatu dugun azterlanean proposatutako jarduketei. Bilera horretan bertaratutakoren batek jada agertu zuen nolako arriskua zegoen A-68 autobioan traktoreak zirkulatzearen ondorioz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 18an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, indarrean diren udalez gaindiko plan sektorialeiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Dabid Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, indarrean diren udalez gaindiko plan sektorialeiei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 6ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peña jaunak ondoren azaltzen den galderari idatziz erantzuteko eskatu du, eta ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna. Honako hauei

buruzko informazioa eskaut da: "Gaur egun, zenbat udalez gaindiko plan sektorial daude indarrean Nafarroan? Nafarroako Gobernua zer egiten ari da edo zer urrats egin ditu programa-akordioan jasotakoa betetzeko?" (9-16/PES-00190). Hona hemen kontseilariaren erantzuna:

1. PDF dokumentu bat gehitu dugu gaur egun indarrean dauden udalez gaindiko plan sektorialen zerrendarekin, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko Lurraldearen Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak emandako datuei jarraituz.

2. Udalez gaindiko proiektuaren eta planaren kontzeptua etorkizunean berraztertzei dago-kionez eta proiektu edo plan bat udalez gaindiko-tzat jotzeko irizpideei dagokionez, berriz, honakoa adierazi behar dugu:

Nafarroako Gobernurako 2015-2019 legegintzaldirako programa-akordioak, 5. puntuan, honako hau ezartzen du: "Toki Administrazioa, Azpiegiturak, Ingurumena, Landa Garapena eta Lurralde-antolamendua". 16. puntua. "Udalez gaindiko plan sektorialaren formula. Aipatutako udalez gaindiko plan sektorialeki dagokienez, udalaz gaindikotzat zer hartzen den azter dadin bultzatzea, udal-eremua gainditzeko ez duten proiektuek kontzeptua ez gaiztotzeko. Alde horretatik, 35/2002 Foru Legea aldatzea bultzatuko da, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa (zehazki, 42. artikulua), udalez gaindiko plan eta proiektuen definizioa zehazteko eta, horrela, 'Nafarroako toki-entitateek hirigintza-arloan dituzten eskumenetan sartzen ez den heinean, lurraldea egituratzen' laguntzen duen tresna bat 'babesteko'."

Halaber, zenbait udalez gaindiko plan sektorial aipatzen dira (Gendulain, Etxabakoitz, Donapea), eta haien etorkizuneko garapenari buruz gogoeta egin beharra planteatzen da. Eta adostasuna lortu beharreko gaiak dagokienez, 5. puntuan, Lurralde-antolamenduaren blokearen barruan, Aroztegiko udalez gaindiko plan sektoriala aipatzen da.

Akordio-programako atal horiek betetze aldera, zenbait lan eta azterketa egin dira jada Nafarroako Gobernuan, ikuspegi horizontal batetik, baina beharrezkotzat jotzen da foru agindu bidez formalizatzea kasuan kasuko erabakiak oinarritzeko ondorioak atera beharko dituen talde horren sorrera, osaketa eta funtzionamendua.

Eragin horietarako, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren 2016ko otsailaren 8ko 42/2016 Foru Agindua onetsi zen, zeinaren bidez erabakitzen baita udalez gaindiko plan eta proiektu sektorialak analizatu eta aztertzeko lantaldearen xedea, osaketa eta funtzionamendua.

Honako hau da foru agindu horren funtsezko edukia:

1.- Udalez gaindiko plan eta proiektu sektorial batzuen izapidetze administratiboaren egoera aztertze aldera eta haiek lurralde antolamenduko tresna horietarako ezarritako lege-esparruan kokatzeko, departamentuen arteko lantalde bat sortzen da.

2.- Ukitutako departamentuekin ados jarrita, lantaldea honako hauek osatuko dute: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren eta Garapen Ekonomikorako Departamentuaren ordezkariak, eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako

Departamentuaren ordezkariak. Departamentu horietako bakoitzak lantaldean parte hartuko duten pertsonak izendatuko ditu.

3.- Udalez gaindiko plan eta proiektu sektorial bakoitza aztertzeko, NASUVINSA enpresa publikoaren laguntza teknikoa erabiliko da. NASUVINSAK diziplina anitzeko lantalde bat jarriko du, honako arlo hauetan prestakuntza duten pertsonak osatua: arkitektura, ekonomia eta zuzenbidea.

4.- Bere lanak egiteko, lantaldeak intereseko gai zehatzetan adituak diren pertsonak deitu ahaliko ditu, baldin eta jotzen bada behar diren azterlanak osatzeko gako diren elementuen ekarpena egin dezaketela.

5.- Lantalde horren lanetik heldu diren ondorioak kasuko aktetan jasoko dira. Haietan, egindako azterlanak jasoko dira, bai eta Nafarroako Gobernuari azter ditzan aurkeztuko zaizkion ondorioak ere. Nafarroako Gobernuak, azkenik, kasuan kasu bidezkoak diren erabakiak hartuko ditu.

6.- Baldin eta Nafarroako Gobernuak horrela jotzen baldin badu, proposatu ahalko du aldaketak egitea lurralde-antolamenduko tresna horiek arautzeko testuetan, abiapuntutzat hartuta ukitutako sektoreekin parte-hartze prozesu bat abian jartzeari. Gero, foru lege proiektu baten bitartez onetsiko dira, hartarako ezarritako prozedurei jarraituz.

Otsailaren 8ko 42/2016 Foru Aginduaren bidez sortutako lantalde horrek honako jarduketak hauek egin ditu:

– Aroztegiko udalez gaindiko plan sektorialari buruzko ondorioen amaierako txosten-akta.

– Salestarren udalez gaindiko plan sektorialaren azterlana, zeinaren ondorioei buruzko amaierako txostenaren zain baikaua.

– Gendulaingo udalez gaindiko plan sektorialaren azterlana (hasierako hurbilketa).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 26an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Pediatriako Zainketa Intentsiboen Unitateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Pediatriako Zainketa Intentsiboen Unitateari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 6ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak informazioa eskatu du. Ondotik dator Osasun kontseilariaren erantzuna. Honako hauek ziren galderak: "Zer plan du Osasun Departamentuak Bideko Ama Birjina Ospitaleko Pediatriako Zainketa Intentsiboen Unitatearen zerbitzua hobetzeko?" Hauxe da igorri beharreko informazioa:

Bideko Ama Birjina Ospitaleko Pediatriako Zainketa Intentsiboen Unitatearen zerbitzua hobetzeko, aurreikusita dago hura egungo kokapenetik helduen Zainketa Intentsiboen Unitatearen ondoran libre dagoen beste espazio batera eramatea.

Kokaleku berriak 96,94 metro koadro dauzka, eta gaixoentzako komun lagundua dauka. Kokaleku berriak aukera emanen du laguntza-ordutegiak zabaltzeko. Ordutegi malgua eskainiko da, eguneko 24 orduetan. Ez da denbora-murrizpenik eginen, gaur egun dauden bezalakoak, salbu eta bilakaera klinikorako kaltegarri gerta daitekeela josten den egoeraren bat izatekotan, eta adingabeek gaez laguntza izan ahalko dute.

Espazio berriak argi naturala eta isolamendu akustikoa dauzka.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

Galdera, Cascanteko osasun etxeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Cascanteko osasun etxeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 6ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00193), informazioa nahi baitu Cascanteko osasun-etxearekin lotutako zenbait gairi buruz. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Tuterako osasun-barrutiak honako inbertsio-plana du aurreikusia 2016. urterako, Cascanteko osasun-etxeari dagokionez (horren zati bat gaur egun aztertzen ari da).

OSASUN-ETXEETAN EGINDAKO INBERTSIOAK, 2016 CASCANTE	EGOERA	Zenbatekoa €
Liburutegia bitan banatzea, logela bat egin ahal izateko	Egin gabe dago	1.000
Osasun-etxerako sarbidea hobetu (ate automatikoa)	Egin gabe dago	6.000
Osasun-etxea margotu eta zokaloa aldatzea	Egin gabe dago Oinarrizko osasun-laguntzako taldeak oinarrizko osasun laguntzako zuzendaritzari 2014an eskatua	5.000
Aire giroturako hozteko gailua	Egin da. Ez zegoen beharizanen planean	14.798
		26.798

Honako jarduketak hauek aztertzen ari dira:

- Osasun-etxerako sarbidean ate automatikoa jartzeko aukera.

- Osasun-etxea kokatuta dagoen plazatxoan jarduketak egitea. Udalarena da plazatxoa.

Eraikineko girotze-sisteman hozte-ekipoa aldatzea, osasun etxe guztietan egin ohi diren manten-

tze zuzentzaile eta prebentiboko eragiketen barruan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 26an.

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

Galdera, Fiteroko monasterioan 2016an egin beharreko jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Fiteroko monasterioan 2016an egin beharreko jarduketei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 6ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

"Unión del Pueblo Navarro" parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higueras jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "2016an Fiteroko monasterioan egin beharreko jarduketei buruz" (9-16/PES-00197). Hona Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

Zure galderari dagokionez, jakitera eman behar dizut 2016an bi jarduketa daudela aurreikusita kultur intereseko ondasun horretan.

Lehenengoa da monasterioko antzinako liburutegia eta jantokia zaharberritzea, klaustroaren

hegoaldeko partean. Obra horiek Iruñeko Construcciones Zubillaga SA enpresari esleitu zaizkio apirilaren 8an. Obren aurrekontua 134.426,24 eurokoa da. Esleipenaren zenbatekoa 129.264,27 eurokoa da. Obrak maiatzaren 9an hasi dira. Exekuzio epea lau hilabetekoa izatea aurreikusi da.

Bigarrena monasterioko klaustroa zaharberritzeko lanen zortzigarren fasea da. Horrekin aurreikusita dago monasterioko esparru horren zaharberritzeari amaiera ematea. Beheko klaustroko galerietan, kapitulu-gelan, bataiotegian eta klaustroko patioan esku hartuko da. 707.071,85 euroko aurrekontua du proiektuak. Proiektuaren eta kontratazio-klausulen orriaren onespena izapidetzen ari da, bai eta hura egiteko gastubaimentzea ere. Obrak horren ondoren lizitatuko dira. Behin esleituta, hasi egingen dira, segur aski hilabeteren edo hilabete eta erdiren buruan. Asmoa da obra horiek 2016. urtean egitea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 26an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

Galdera, Tuterako Magdalena elizan 2016an egin beharreko jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Magdalena elizan 2016an egin beharreko jarduketei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 6ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Alberto Catalán Higueras foru parlamentariak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00198) Tuterako Magdalena elizan 2016an egin beharreko jarduketei buruz. Hauxe erantzun dio Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria:

Zure galdera dela-eta informatzen dizut 2015ean marraztutako plano berri eta osoa egin eta gero ebaluazio bat egin dela portada lau urtaroretan eta egun osoan zehar eguzkitzeari buruz,

berariazko programa informatiko baten bidez, zeinak kontuan hartu baitu aurrean dauden eraikinek egindako itzala.

Gertakari hori erabat aztertu ondoren erabaki da baztertua eguzkitik babesteko hasierako plan-teamendua, zeina orain dela bi urte, 2014an, egin baitzen, portada babesteko lehen urratsa egin zenean; alegia, ur-iragazketa eta -isurketa ekidite aldea teilatua konpondu zenean. Ondare Historikoren Zerbitzuak beste monumentu batzuetan egindako babes-egiturek ez dute arazoa modu orekatu

eta nahikoan konpontzen; hori dela-eta, albo-pan-taila begetal bat eratzea ebaluatzen ari da –horrek ere baditu bere mugak–, zeina merkeagoa ere izanen baitzen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 26an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

Galdera, B meningitisaren txertoaren hornidurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, B meningitisaren txertoaren hornidurari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 13ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (9-16-PES-00200). Hona Nafarroako Gobernu-ko Osasuneko kontseilariaren informazioa:

– Zer egiten ari da Osasun Departamendua B meningitisaren txertoaren hornidurarik ezari dagokionez?

Lehenengo nabarmendu beharra daukagu ez dela haurren txerto-egutegian jasotako txerto bat, eta haren finantzaketa publikoa arrisku handiko taldeetarako jasota dagoela soilik.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak uneoro behar beste dosi izan ditu arrisku handiko talde horiei txertoa jartzeko beharrezane aurre egiteko.

INDIKAZIO MEDIKOAK:

Properdinaren eskasia edo osagarriaren faktore terminalen defizitak dituzten pertsonak

(horren barne direla eculizumab jaso dutenak edo jasoko dutenak).

Asplenia edo disfuntzio espleniko larria (zelula faltziformeen anemia) duten pertsonak eta ebakuntza kirurgiko programatua dutenak.

Gaixotasun meningokoziko inbaditzailearen episodio bat pairatu duten pertsonak.

INDIKAZIO OKUPAZIONALAK

Laborategiko langileak (teknikariak eta mikrobiologoak) Neisseria meningitidis izan dezaketan laginekin lan egiten dutenak.

INDIKAZIO EPIDEMIOLOGIKOAK

Kasu edo agerpenen multzoak daudenean, alegia, B serotaldeak eragindako gaixotasun meningokozikoaren bi kasu egiaztatu edo gehiago daudenean, betiere beste bi ezaugarri hauek betetzen badira:

– erakunde, antolakunde edo talde sozial berekoak izatea.

– ≤ 4 asteko epean gertatzea.

Erkidego bateko agerpenetan, alegia, B serotaldeak eragindako gaixotasun meningokozikoaren hiru kasu egiaztatu edo gehiago daudenean, betiere beste bi ezaugarri hauek betetzen badira:

– erkidego-esparru finkatu batean gertatzea.

– ≤ 3 hilabeteko epean gertatzea.

Hiperendemiako egoerak, honela definituta: esparru geografiko batean txertoak estaltzen duen klon baten agerpen gradualak, iraunkorra izan daitekeena.

Beste egoera partikular batzuk, zeinetan osasun-agintariek txertoa jartzearen beharra ezartzen duten. Medikamentu bat merkaturatzeko baimena duen titularrak Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziari informatu behar dio edozein medikamenturen horniduraren murriztapen anormalei buruz.

Bestalde, medikamentuen hornikuntzan arazoak daudela detektatzen denean, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziari (AEMPS) dagokio neurriak hartzea medikamentuen hornidura bermatzeko; esate baterako, medikamentuaren inportazioa baimentzea AEMPSen Atzerriko Medikazioaren Zerbitzuaren bitartez, edo, aparteko izaeraz, gaztelania ez den hizkuntza batean etiketatuta dagoen medikamentu bat merkatura dadin baimentzea.

Autonomia erkidegoetako osasun agintariek AEMPSekin batera lan egiten dute aipatutako neurrien hedapenean eta aplikazioan. Gainera, handizkako biltegiak, farmazia-bulegoak, farmazia zerbitzuek edo herritarrek hornidura-arazoak jakinarazten badituzte, arazo horiek ikertu egiten dira eragile guztiekin (laborategi farmazeutikoa, handizkako biltegiak eta farmazia bulegoak), eta arazoa egiaztatzen bada, AEMPSi jakinarazten zaio, neurri egokiak har ditzan.

"BEXERO suspensión inyectable en jeringa precargada" medikamentua (hemendik aurrera, BEXSERO) Espainiako botika guztietan dago 2015eko urriaren 1etik AEMPSek preskripzio-baldintzen aldaketa baimendu ondoren, hain zuzen "ospitale-erabilerako medikamentutik" "preskripzio medikoari lotutako medikamentura" aldatzeko (errezeta medikoarekin).

Aldaketa horren ondotik, egindako kalkuluen aldean eskarrietan egon den espero gabeko demanda handia dela eta, bai Espainian, bai mundu mailan, banaketa-kanalean erabilgarri zeuden dosien banaketa kontrolatua egin behar izan zen. Halaxe jakinarazi zuten BEXSERO medikamentua merkaturatzeko baimenaren titularra den laborategiko arduradunek, Osasun Departamentua laborategiarekin harremanetan jarri zenean, 2015. urtearen amaieran, hornidura-arazoei buruzko informazioa eskatzeko. Halaber, laborategitik jakinarazi zen kopuru kontrolatuen banaketa hori egiten jarraituko zela harik eta eskaintzaren eta eskariaren arteko doikuntza bat lortzen zen arte, eta hori gradualki gertatuko zela, Espainiako merkaturan ekoiztutako txertoen kopuruak gora egiten zuen neurri berean. Kontuan hartuta fabrikazio-aldia gutxi gorabehera 9 hilabetekoa dela, doikuntza hori 2016ko bigarren hiruhilekoaren amaieran gerta liteke.

Ordura arte, bai merkaturatze-baimenaren titularra den laborategiak, bai handizkako biltegiak lehenetasuna eman diote merkaturatze txerto-dosi berriak jartzeari alde aurretik banatutako dosien arabera, halako moduz non erraztasunak emanen baitira aurretik jada dosiren bat eman zaien subjektuek txertatzearen pautara osoa bete ahal dezaten.

BEXSERO txertoaren banaketan izandako arazoak zirela-eta, AEMPSek baimena eman zuen 2015eko abenduan BEXSERO suspentsio injektagarria xiringa aurrekargatua medikamentuaren merkaturatze berezia egiteko gaztelaniaz beste hizkuntza batean (portugesez), zenbait baldintza jarrita. Guztira, AEMPSek 152221 loteko 23309 unitate baimendu zituen, 2017-02-28ko iraungipen-datarekin.

Aipatutako medikamentua zenbait baldintzaren pean baimendu zen; honako hauek, besteak beste:

1.- Medikamentua handizkako biltegiara eta farmazia-bulegoetara zabaldu ahalko da soilik baldin eta banatutako unitate bakoitzari gaztelaniazko prospektua gehitzen bazaio. Halaber, dispentsazio bakoitzean gaztelaniazko prospektu bat eskuratu da unitate bakoitzarekin.

2.- Laborategiak inguruabar hori aurrez jakinaraziko die unitate horiek banatzeko asmoa dagoen autonomia erkidego bakoitzeko osasun-agintariei, eta haien onespena edukiko da produktua banatzeari ekin baino lehenago.

3.- Laborategiak handizkako biltegiei eta banaketa berezi honen hartzaile diren farmazia-bulegoei informatuko die, eta horiek, beren aldetik, dispentsazioa egitean informatuko dute.

4.- Hornidura-arazoari konponbidea eman bezain laster, portugesez egokitutako medikamentua hornitzeari utziko zaio.

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak onartu egin zuen Nafarroako handizkako biltegiei eta farmazia-bulegoei BEXSERO suspentsio injektagarria xiringa aurrekargatua medikamentua banatzea, portugesez egokitutako materialarekin eta gaztelaniazko prospektuarekin. 152221 lotea da, 2017-02-28ko iraungipen-data duena, AEMPSek aparteko izaeraz baimendua, eta halaxe jakinarazi zion GLAXOSMITHKLINE laborategiari.

2016ko urtarrilaren 14an, Osasun Departamentuak informazio-ohar bat banatu zion Nafarroako handizkako biltegiei eta farmazia-bulegoei, non jakitera ematen baitziren baimen berezi hori emana zuela, eta medikamentua zein baldintzatan banatu eta dispentsatu behar zen.

Orduetik, Osasun Departamentuan ez da inolako komunikaziorik jaso BEXSERO medikamentuaren hornidura-arazoei buruz, ez medikamentuen handizkako biltegi banatzaileetatik, ez farmazia-bulegoetatik, ez Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialetik, ez eta beste inongo eragile edo herritarrengandik ere.

Gaur den egunean, ez da portugesez egokitutako medikamentua hornitzen ari, baizik eta gaztelaniazko etiketa duen medikamentua. Farmazialaboretegiak kopuru mugatuetan banatzen jarraitzen du. Handizkako biltegiek informatu dute ez zaiola medikamentua farmazia-bulegoetan hornitzeari utzi, baina horniduran atzerapen batzuk egon badaude, eta hornitutako aleak oso mugatuak dira.

BEXSERO txertoa merkaturatzeko baimenaren titularra den GlaxoSmithKline laboretegiak berriki emandako informazioaren arabera, ondoren transkribatu bezala, jotzen da datorren ekainetik aurrera farmazietarako hornidura gradualki normalizatzen joanen dela.

“GlaxoSmithKline lan egiten ari da ahal den dosi-kopuru handiena jasotzeko; izan ere, loteak sistematikoki jasotzen dira, eta hori aukera ematen ari da horniduraren egoera hobetzen joateko. Espero da ekainean zehar hobekuntza

nabarmena gertatzea eta udan zehar txertoa botiketan normaltasunez eskuragarri egotea.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu beharra dago txerto horren ekoizpen prozesua bereziki konplexua dela, eta 9 hilabete inguru eskatzen dituela. Hori dela eta, aurreikusitako loteren bateko ekoizpen, analisi edo liberazio prozesuan edozein arazo gertatuz gero, aldaketak gerta litezke egungo kalkuluetan”.

– B Zer jarduketa egiten ari da Gobernua txertoa baldintza egokietan ematen dela bermatzeko?

Nafarroan, BEXSERO txertoa farmazia-bulegoetan ematen da, errezeta medikoarekin eta hotz-katean kontserbatzeko bermearekin, zeren eta medikamentu termolabila baita. Nafarroako farmazia-bulegoetan aldizka egiten diren ofiziozko ikuskatzeen bitartez egiaztatzen da baldintza horien betetzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

Galdera, Aragoiko telebistaren emisioak ikusi ahal izan daitezzen Aragoiko Autonomia Erkidegoarekin inolako hitzarmenik edo akordiorik egote-ari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Dabid Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Aragoiko telebistaren emisioak ikusi ahal izan daitezzen Aragoiko Autonomia Erkidegoarekin inolako hitzarmenik edo akordiorik egoteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 13ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peña jaunak idatzizko galdera egin du Aragoiko telebistaren emisioak ikusi ahal izateko Aragoiko Autonomia Erkidegoarekin dauden hitzarmenei buruz (9-16/PES-00201). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Foru Komunitateak eta Aragoiko Autonomia Erkidegoak inongo hitzarmen edo akordiorik ez dute Aragoiko Telebistaren emisioak ikusi ahal daitezzen.

Bi erkidegoek indarrean dute, 2009ko ekainaren 15etik, lankidetzarako protokolo orokor bat, zeinak, Aragoiko telebista-emisioak berariaz aipatzen ez badira ere, modu orokorrean aurreikusten baititu honako lankidetzak-ekintza hauek:

– Bi erkidegoen garapen ekonomiko, sozial eta kulturala erraztuko dituzten proiektu komunak sustatzea.

– Lurralde mugakideetako herritarrei ematen zaien arreta eta dauden baliabideak hobetzen dituzten eta lurralde horietan dauden baliabideen eta tresnen koordinazioa sustatzen dituzten ekintza komunak garatzea.

– Bi aldeen arteko eta beste autonomia erkidego batzuekiko komunikazioak hobetzen dituzten azpiegituren exekuzioa bultzatzea.

– Informazio-trukea errazten dituzten informazioaren eta komunikazioaren teknologiak garatzea.

– Bi erkidegoetako profesionalentzako esperientzia-trukea eta prestakuntza jarduketak bateratuak sustatzea.

– Norberaren erkidegotik kanpoko lurralde-esparruan ematen diren zerbitzuen jarraipena bideratzen duten tresnak garatzea.

– Bi erkidegoen zerbitzu berekien kudeaketaren eta prestazioaren kalitatea hobetzea bilatzen duen beste edozein ekintza.

Instalazioei buruzko galderaren bigarren atalari dagokionez, nabarmendu beharra dago Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean bi telekomunikazio-zentro badaudela Aragón TVren (Aragoiko telebista publikoa) seinalea emititzen dutenak. Honako toki hauetan daude biak:

- Arangoiti (Leire).
- Elomendi.

Bi zentroak Cellnex Telecomen instalatu zituen eta berak kudeatzen ditu, Aragonesa de Servicios Telemáticos (AST) Aragoiko enpresa publikoaren enkarguz.

Bi zentro horiek Aragón TVren emisio-zentrozat aitortuta ditu Industria, Energia eta Turismo Ministerioak, eta haien eginkizuna da Aragoiko telebistaren emisioak osatzea, Aragoiko lurraldetik teknikoki nekez estal litezkeen Aragoiko lurralde batzuetan. Horretarako, bi zentro horiek emititzen dute Lurreko Telebista Digitalaren Plan Tekniko Nazionala onesten duen irailaren 19ko 805/2014 Errege Dekretuan Aragoiko Autonomia Erkidegoari esleitutako frekuentziak erabiliz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko ekainaren 3an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko mandatarari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko, B2 pareko euskara mailarekin.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren 2016ko maiatzaren 9ko Ebazpenaren bidez onetsi zen Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko mandatarari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, ez dagoenez izangai bazterturik, bidezkoa da, deialdiko 4.3 oinarrian ezarritakoarekin bat etorrituz, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda zuzenean onestea eta behin betiko zerrenda hori Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean eta Ganberaren iragarki-oholean nahiz web orrian argitaratzea.

Beraz, lehendakaritza honek, bere ahalmen eta eskumenak baliatuta,

EBATZI DU:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko mandatarari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea. Hona:

Onartuak:

Aragón Samanes, Jesús M^a

Cia Goñi, Mikel

Erburu Elizondo, Fernando

Bigarrena. Deialdi hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Erakundearen iragarki-oholean nahiz web orrian argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

